

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Lehenengo online denda bat irikiko genuke, eta bide hori hazten joateko, sare sozialetan marketin kanpainak egiten hasiko gara, adibidez, elkarrizketak kaleetan, gure ileordeak erakusten dituzten bideo eta argazkiak, bideo dibertigarriak...

Gure online denda handitzen denean, denda fisiko bat irekitzea da helburua. Hiriburu batean adibidez.

Bitartean, herri ezberdinetako ileapaindegiekin gure produktua saltzeko harremanak landuko genituzke ere. Bezeroek ileordeak ikutu, aukera ezberdinak bertatik bertara ikusi eta aukeratzeko aukera izan dezaten. Normalean ilearekin arazoak dituen pertsonak, bere konfidantzazko ileapaindegira joko duela pentsatuz, gure bezeroengana iristeko modu oso ona dela iruditzen zaigu.